



MEMORIA, AGENCIA VASCA DE REINserCIÓN SOCIAL/GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA SORTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN IZAPIDEEI BURUZKOA, EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKORA BIDALTZEKO

I.- Aurrekariak

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko ekainaren 1eko agindu baten bidez abian ipini zen Agencia Vasca de Reinserción Social/Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko legearen aurreproiektua egiteko prozedura. Aginduaren bigarren apartatuaren arabera prozedura presazkoa zen.

Ekainaren 3an onartu zen agindu baten bidez aldez aurreko onarpena eman zitzaion aurreproiektuari eta prozedura abiarazi zuen aginduan ezarritako txostenak eskatu ziren.

II.- Prozedurari erantsitako txostenak

1.- Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren txostena

Txosten horren barruan erakunde berriak enpresetan edukiko duen eraginaren ebaluazioa dago (16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoa; 6. artikulua). Txostenean ez da proposatzen inolako aldaketarik testuan eta adierazten da bat datorrela ordenamendu juridikoarekin.

2.- Lan Harremanen Zuzendaritzaren txostena.

Txostenean adierazten da jasotako dokumentazioa aztertu dela eta ondorioztatu dela zuzendaritza horri ez dagokiola espedienteari buruzko txostena egitea; horrez gainera honako hau ere adierazten da: *“Dena dela, jasota uzten dugu Lan Harremanen Zuzendaritzaren txostenaren mende jarri beharko direla espediente honen bitartez sortu nahi den zuzenbide pribatuko ente publiko berriaren langileekin hitzartzen diren lan-baldintzak”*.

Bat gatoz ohar horrekin. Nolanahi ere, kontuan edukita nolakoa izango den ente berriaren egitura, arrazoizkoa litzateke langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lan-kontratudun langileen hitzarmenaren aplikazio-esparruan sartuko balira.

3.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena

Txosten horretan adierazten denaren arabera, ez da beharrezkoa generoaren araberako eraginari buruzko txostena egitea, zeren eta genero-eraginaren aurreko ebaluazioari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekiditeko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko gidalerroetako lehenaren 2.1.b) apartatuan ezarritako salbuespena aplikatu ahal baitzaio. Gidalerro horiek Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onartu ziren 2012ko abuztuaren 21ean.

Gainera, honako hau ere adierazten da: *“...Hala ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) ezartzen duenaren arabera, botere publikoek bizitzako esparru guztietan emakumeek eta gizonek aukera berak*

edukitzea eta tratu bera jasotzea sustatu eta bermatuko dute. Horren ildotik, uste dugu ona dela lege-proiektuan kontuan edukitzea genero-ikuspegia Euskadiko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen gizarte- eta lan-inklusiorako esku-hartzearen ereduan.

Nolanahi ere, nahiz eta ohartu AUKERAK eratzeko helburuetako bat espetxeetan dauden emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egitea dela, berriz ere esan behar dugu erakundearen egitekoetan honako xede hauetarako jarduketak sartu behar direla:

- *Espetxeetan barneratuta dauden emakumeekin eta gizonekin egiten diren esku-hartzeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa txertatzea.*
- *Berdintasunaren arloko berriazko trebakuntza ezartzea Gizarteratzearen Euskal Agentzian lan egiten duten pertsonentzat, beren eguneroko jardunean eta esparru guztietan genero-ikuspegia txertatzea bermatzeko.*
- *Genero-ikuspegia txertatzea lanerako prestakuntzan eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan, genero-alborapenik gerta ez dadin.”*

Oharpen horiek bat datoz Euskadiko espetxe-eredua garatzeko asmoarekin Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako oinarrien dokumentuan ezartzen denarekin.

4.- Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena

Txosten horretan adierazten denaren arabera, baldin eta Agentziari esleitzen zaizkion egitekoak eta jarduerak egiten dituztenek ahal publikoak erabili behar badituzte, zuzenean zein zeharka, edo interes orokorren babestu behar badituzte, lanpostu horiek funtzionarioentzat gorde behar dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 9. artikuluan arautzen duen bezala.

Artikulu horretan ezartzen denaren arabera eta Erkidegoko Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, txostena egin duen zuzendaritzak uste du legearen aurreproiektuaren artikuluko bakarraren 5. apartatuan honako testu hau sartu beharko litzatekeela:

“Ahal publikoak baliatzea eta interes orokorrak zaintzea dakarten lanpostuak funtzionarioek bete beharko dituzte, eta langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzio publikoa arautzen duten arauak bete beharko dituzte.”

Oharpen hori zuzena da eta aurreproiektuaren testuari erantsi zaio, artikuluko bakarraren 5. puntuaren paragrafo berrian, hain zuzen ere.

Gainera, txosten horren ondorioen artean honako hau ere adierazten da: *“Legearen aurreproiektuan ezarri behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari egitekoak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakiari atxikitako Trabajo Penitenciario y Formación zuzenbide publikoko estatu-erakundeko langileak Gizarteratzearen Euskal Agentziara pasatuko direla, horrek bere gain hartuko dituen egitekoetan jarduten baitute.”*

Oharpena onargarria da eta aurreproiektuari erantsi zaio, xedapen gehigarri batean, hain zuzen ere.

5.- Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena.

Txostena entea sortzearen aldekoa da. Nolanahi ere, zenbait gogoeta egiten dira aurreproiektuak EAEko aurrekontu orokorretan eduki lezakeen eragin ekonomikoari buruz; hona:

“2021eko ekitaldirako aurreikuspen honetan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak ente berriari egingo dizkion bi ekarpen ageri dira; bata inbertsioetarako, 129.500 euro, eta bestea ustiapen-gastuetarako, 848.396 euro.

ente berriarentzako ekarpenak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2021eko indarreko aurrekontuen kargura finantzatzeko dira. Gainera, beharrezkoa izanez gero, entea finantzatzeko behar diren aldaketak egingo dira aurrekontuetan.

Horretarako, behin espetxeen arloko eskumenak eskualdatzeko errege dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoan, dekretu bat egingo da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuari gehitzeko AUKERAK zuzenbide pribatuko ente publiko berriaren 2021eko ekitaldia amaitu arteko jarduketak finantzatzeko behar diren gastu-partidak zuzkitzeko, egingo zaion transferentziaren partida barne.

2021. urtean sortzen bada, AUKERAK ez da hasiko jardunean aurrekontu-ekitaldiarekin batera; horregatik, Jaurlaritzak onartu beharko ditu entean 2021eko aurrekontuak.

2022ko ekitaldiko kopuruak proposamenak dira, eta EAEko 2022ko aurrekontu orokorrak prestatzeko eta gero Eusko Legebiltzarrean onartzeko lantzen diren aurrekontu-agertokiei egokitu beharko zaizkie.”

Gogoeta hori bat dator aurreproiektuaren memorietan adierazten denarekin. Ez dauka eraginik arauaren testuan eta ez du beste azalpenik behar.

6.- Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostena.

A) Prozedura eta izapidetzea.

Bi gogoeta egiten dira honetaz. Lehenengoa Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuak izapidetzean daukan eraginari buruzkoa da; hona:

“Alde batetik, zuzenbide positibo aplikagarririk ez dakarrenean ere, kongruentzia-parametro gisa kontuan hartu behar da honako hau: Gobernu Kontseiluak (organo horren mende egongo da hemen aztergai dugun aurreproiektua ere) 2020ko abenduaren 29ko bilkuran onetsitako Euskal

Sektore Publikoaren Legearen proiektuak 44.1 artikuluan dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraz besteko erakundeak eratzea helburu duten xedapenen kasuan, batera izapidetu beharko dute Administrazio Orokorrean ogasun-gaien eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak..”

Gogoeta hori dela-eta, kongruentzia-parametro gisa erabili ahal bada ere, ez da zuzenbide positiboa, ez dakigu noiz onartuko den eta ez dakigu nolakoa izango den azkenean onartzen den testua. Izapidetzea eta onarpena indarreko legeriaren arabera egin behar dira, ez noizbait, proiektu bat onartuz gero, egongo litzatekeen legeriaren arabera.

Hala ere, espedientean Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena dago eta ekimenaren aldekoa da.

Bigarren gogoeta memorian nahitaez arau-proiektuak eragingo dituen karga administratiboan eragina berariaz aipatu beharri buruzkoa da.

Espedientean dauden memorien arabera, entearen sorrerak ez du edukiko inolako eraginik herritarrengan eta espetxean egon diren pertsonak komunitatean gizarteratzeak ondorio positiboa du ekonomian, berriz ere deliturik ez egitea bultzatzen baitu eta delituen ondoriozko kostuak (sozialak eta ekonomikoak) murrizten baititu.

Ez da identifikatzen herritarrengan eragina edukiko duen karga administratiborik, karga administratiboaren definizio honen arabera: pertsona edo enpresa batek arautegiaren ondoriozko betebeharrak egin beharreko jardura administratiboa. Sortu nahi den erakundearen helburua eta egitekoak kontuan harturik, ez die karga administratibo berririk ezarriko herritarrei eta ez ditu aldatuko herritarrek lehendik dauzkatenak (ez gehitu ez murriztu).

B) Testua eta edukia.

- Legearen aurreproiektuaren testua.

Kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostenean adierazten da legearen izenburuan eta erakundearen izenean ez dela aipatzen gizarteratzeak xede dituela xedea espetxean edo espetxetik pasatu ondoren erdi-askatasunean dauden pertsonak; hori dela-eta, gomendatzen da pertsona horiek aipatzea legearen izenean eta erakundearen izenean.

Iradokizuna ez da onartzen, zenbait arrazoi dela eta. Egia da komeni dela erakundearen eta legearen izenak argiak izatea, ez nahasteko beste errealitate edo esparru batzuekin.

Egia da, halaber, DRAEn honela definitzen dela "reinsertar": "volver a integrar en la sociedad a alguien que estaba condenado penalmente o marginado". Beraz, espetxean dauden pertsonak aipatzen dira, baina eremu semantikoa zabalagoa izan dezake. Hala ere, kontzeptu juridikoa espetxearekin lotuta dago, Konstituzioaren arabera gizarteratzea baita zigorraren helburua.

Jardunaren eremu subjektiboari dagokionez baino gehiago, izena ez da aski esplizitua eremu objektiboari edo helburuari dagokionez. Zigorraren helburua gizarteratzea izatea espetxe-tratamendu guztien oinarria da; aldiz, Agentziaren xedea laneratzen prestatzea baino ez da izango.

Dena den, izena nahiko zehatza izanik ere, gogoan eduki behar da xedapen orokorrak egiteko gidalerroek ezartzen dutela izenburua ahalik laburrena izan behar dela, ez dela erabili behar izenburu luzeak, ez beharrezkoa ez den adjektiborik, ez deskripzioetako gehiegikeriarik. Gainera, gidalerro horiekin jarraituta, azalpen-zatian Agentziaren jardunaren eremu subjektiboa edo eremu objektiboa zehaztu daitezke, aurreproiektuan egiten den bezala.

Araugintzaren kontrol ekonomikoari buruzko txostenean proposatzen da “Aukerak” eranstea legearen izenean; onartu egin da.

Gainera, txostenean adierazten da 7. puntuan –8. puntua izango da, 7. puntuan zenbait zehaztapen egingo baitira AUKERAKen egitekoak gauzatzeko egin beharreko jardueri buruz– 14/1994 Legea aipatzen dela (14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa) eta ezabatu egin behar dela eta beraren ordean honako hau aipatu: 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa. Onartu da.

C) EAEko Administrazio Publikoaren egituraren izango duen antolaketa-eragina.

- Justifikazioa.

Kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostenean adierazten da aurreproiektuari Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuan ezartzen eta arautzen diren agiri batzuk erantsi behar litzazkiokela: jarduera-plana, ekonomia- eta finantza-azterketa, Ogasuneko sailburuak alde aurretik txostena eginda. Gobernu Kontseiluak onartu beharko litzuzke, legearen aurreproiektuarekin eta lehen ekitaldiko aurrekontuarekin batera.

Lehenago azaldutako zerbait errepikatuko dugu: arauaren izapidetzea eta onarpena indarreko legeriaren arabera egin behar dira, ez noizbait, proiektu bat onartuz gero, egongo litzatekeen legeriaren arabera.

- Edukia.

Txostenean esaten da aurreproiektu honen berezko edukiak direla Euskal Sektore Publikoaren Legearen proiektuan eskatzen diren elementu batzuk: egoitza, gobernu-organotako kideen izendapena eta haien egitekoen banaketa, zuzendaritzako postuak eta haien egitekoak, atxikitako langileak eta ondarea, erakundea azkentzeko eta likidatzeko prozedura.

Lehen ere esan den bezala, hizpide dugun legearen izapidetzea eta onarpena indarreko legeriarekin bat etorri egin behar dira eta, txostenean bertan adierazten den bezala, EONALen testu bateginean ez da zehazten legean nahitaez agertu behar den ezer, erakundearen estatutuetatik ondorioztatu ezin daitekeenik. Beste alde batetik, ez dirudi eduki horiei guztiei, eman nahi zaien hedadurarekin, lege-erreserba aplikatu behar zaienik, erregelamendu bidez aldatu ahal badira.

Horrenbestez, egoitza finkatzea dela-eta, azkenean hautatu da tarteki batean sartzea aurreproiektuaren artikuluko bakarraren 1. puntuaren amaieran: Gasteizen egongo da.

Gobernu-organoei dagokienez, antzeko enteak sortzeko arauetan oinarritzeko xedapenak ezartzen dira, eta gero, estatutuak onartzen dituen dekretuko erregelamenduaren bidez, sortze-legean ezarritako antolaketa-egitura garatzen eta osatzen da.

Langileen arloan, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txosteneko oharpenei buruzko gogoetak berretsi behar dira.

Ondarea dela-eta, espedientean adierazten da proiektuaren arabera erakundeak errentatutako lokaletan ekingo diola bere jardunari eta lokalak zehazten ditu; horrez gainera, azaltzen da ondoren lokal bat erosiko diola "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari atxikitako erakundeetako bati, 1.500.000 € ingurukoa, eta horrela ustiapen-gastuak murriztuko direla."

Erakundea azkentzeko eta likidatzeko prozeduraz denaz bezainbatean, legean ez da hori nahitaez arautu behar, non eta ez den nahi deslegeztatu erabakia; izan ere, EONALTBren 12. artikuluan ezartzen da erakundea azkentzeko ez dela beharko berariazko araurik, baldin eta erakundea sortzeko arauan (edo beste batean) azkentzeko arrazoiak eta prozedura zehaztu badira.

- Egitekoak.

Entearen egitekoak direla-eta, txostenean adierazten da hura sortzeko legearen aurreproiektuan ez dela ezarri dirulaguntzak emateko aukera, eta, beraz, ezin izango duela dirulaguntzarik eman. Ondorio hori ez dator bat EONALTBren 48. artikulua testuarekin, ezartzen baitu halako erakundeek dirulaguntzak eman ditzaketela, baldin eta "erakundea sortzeko legean edo estatutuetako arauetan sustapen-ahal administratiboa ematen bada". Beraz, estatutuetan dirulaguntzak emateko aukera ezar daiteke.

Hala ere, nahiz eta gaur-gaurkoz ahal hori erabiltzea aurreikusita ez egon, aurreproiektuan txertatu da, 7. puntuan. Puntu horretan AUKERAKen egitekoak gauzatzeko egin beharreko jardunaren inguruko alderdi batzuk arautzen dira. Ondorioz, hasieran onartutako aurreproiektuaren 7. puntua zena (arabide ekonomikoa, ondarea, kontratazioa, aurrekontuak, finantzak eta ekonomiaren eta kontabilitatearen kontrola) orain 8. puntua da.

- Antolaketa.

Txostenean proposatzen da legean sartzea, gobernu-organoen zehaztapena ez ezik, osaera zehatza, izendapena eta funtzioen banaketa. Puntu horri buruz egindako gogoetetara jotzen dugu.

- Langileak.

Txostenean adierazten da on litzatekeela zehaztea ente berriari atxikiko zaizkion langileak. Berez, ez da legean arautu beharreko kontua, baina onartu da xedapen gehigarri batean zehaztea zein izango den AUKERAKen egitekoak egiten zituen estatu-erakundetik transferitutako langileen destinoa.

Halaber, txostenak Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txosteneko oharretara jotzen du (dagoeneko eman zaie erantzuna memoria honetan).

- Erakundearen ondarea eta hura azkentzeko eta kitatzeko prozedura.

Honetaz gorago eman dugu iritzia.

- Beste gogoeta batzuk.

Kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostenean adierazten da aurreproiektuan ezarri behar litzatekeela erakundearen estatutuak Administrazio Kontseiluak aztertuko dituela egiten duen lehen bilkuran. Iradokizuna ez da onartu. Erakunde berria abian jartzea presazkoa da, lanean egon beharko litzateke urtarrilaren 1erako, eta horregatik legearen izapideak eta hura garatzeko dekretuarenak aldi berean egiten ari dira.

D).- Eragina ekonomian eta aurrekontuetan

Kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostenean adierazten da espedienteko memoria ekonomikoan behar diren eduki gehienak daudela, baina ez denak.

- Gastuei dagokienez

Memorian ez da zehazten zenbat langile beharko diren (ez eta bakoitzaren ordainsariak eta kostuak ere), eta hori ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 43. artikulua araberak.

Informazio hori memoria osagarri batean sartu da.

- Diru-sarrerari dagokienez

Beste alde batetik, memoria ekonomikoan ezartzen da ez dela beharrezkoa AUKERAK erakundeak zergen arloko ahala edukitzea. Horrez gainera, ez da ezer aipatzen zehapenak ezartzeko ahalaz eta zehapenak kudeatzeaz ere; beraz, uste dugu ez duela diru-sarrerarik etorriko bi iturri horietatik.

Ondorio hori zuzena da.

- Ustiapen-aurrekontua eta kapital-aurrekontua

Ustiapen-aurrekontuaren eta kapital-aurrekontuaren proiektua, behin-behineko balantzea, entearen galera-irabazien kontua, 2021eko eskudiru-fluxuaren egoera-orria eta entearen bi urteko plana direla-eta, KEBek bere txostenean dio aurreikuspena 4 urterako izan beharko litzatekeela eta bertan erakundearen bidez epe ertainera zer lortu nahi den zehaztu beharko litzatekeela (kopuruak adierazita), eta helburuak lortu direnez egiaztatzeko aplikatuko diren adierazleak (objektiboak zein subjektiboak) ezarri beharko liratekeela.

Horri erantzuteko, kontuan eduki behar da urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 43. artikuluan ezartzen duela lau urterako plan ekonomikoa aurkeztu behar dela, behar denean.

Erakunde hau ezinbestekoa da eskualdatutako eskumena kudeatzeko; izan ere, hain da beharrezkoa, ezen praktikan EAEk ez baitu bereganatuko eskumena erakunde sortu arte.

Beraz, erakundearen finantza-bideragarritasunari buruzko kalkulua edo zenbatespena ez da sorrerarako erabakigarria, kasu honetan; izan ere, nahitaez sortu behar da. Eta

izapideak eskumena bereganatu aurretik amaitu behar direnez, gaur egun ezinezkoa da lau urterako aurreikuspena egitea, zenbatesteko moduko helburu neurgarriekin.

7.- Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

2021eko uztailaren 28an onartu zen Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena. Haren abiaburua da legearen aurreproiektua izanik kontsulta-funtzioa ez dela legezketasun-azterketa bat egitea, baizik eta arauketa egokia izaten laguntzea.

Beraz, aurreproiektuak eskumen eta araudi egokiak jasotzen dituen aztertu du, eta ondorioztatu du proposatu den erregulazioa bat datorrela eskumen- eta arau-esparruekin.

Legegintza aurreko izapidetzeari dagokionez, bestalde, ondorioztatzen du izapidetzea egokia izan dela, kontuan izanda espedienteak presaz artatu dela. Adierazi du aurreproiektua hasieran Legebiltzarrera bidaltzeari garrantzia kendu behar zaiola, lege-proiektu hori haren txostenekin batera bidali behar baita Legebiltzarrera; are gehiago, premiaz bidali behar da. Jasotzen du, gainera, proiektuaren izaera aintzat hartuta ez dela beharrezkoa beste administrazio batzuetara bidaltzea; baina, gero, entitatea bitarteko propioa dela aipatzen du.

Erregulazioaren edukiari dagokionez, aplikatu beharreko araubide juridikoarekin bat datorrela jasotzen du. Baina ohar batzuk ematen ditu:

Artikulu bakarreko laugarren paragrafoari buruz (gobernu organoak) azpimarratzen du erregulazioa laburra dela, entitatearen estatutuak onartuko dituen araudira jo behar dela azaltzen baitu. Haren ustez, gai berari lotuta dauden beste lege batzuk luzeagoak dira. Alabaina, onartzen du Estatuako erakunde publiko bat eratzeko legearen edukian SPAJLren 91.2 artikulua ez duela ezartzen haren antolaketa-egitura zehaztu behar denik; egitura hori estatutuetan ezarri behar da.

Irizpeneko artikulu bakarraren bederatzigarren paragrafoak, entitate berriaren botere adjudikatzailearen eta bitarteko propioaren izaera arautzeari dagokionez, hitzez hitz ezartzen du ez duela eragozpenik, baina aurreproiektuak berak aipatzen duen kontratu-legeriaren lege-betekizunak erreparatu ditu, entitate berriaren jarduna baldintzatuko baitute.

Horri lotuta ondorengo hausnarketa egin behar da. Ez dago zalantzarik, eta hala adierazten du aurreproiektuak, AUKERAK zuzenbide pribatuko entitate publikoa denez, botere adjudikatzailearen izaera ere baduela egiten dituen eskuraketei dagokienez, eta eskuratze horiek kontratu publikoen legeriaren arabera arautuko direla.

Ekoizpen-tailerren antolaketak bi alderdi ditu. Lehenengoa, entitatearen ekoizpen-tailerrekin du zerikusia bereziki; izan ere, espetxeetarako jardura osagarri jakin batzuek arduratzen dira, eta sortu nahi den entitatearen antzeko beste batzuek egiten dituzte espetxeetako administrazioak bitarteko propio bati enkargatuta. Baina badaude beste ekoizpen-tailer batzuk ere, kanpoko enpresen arteko elkarlanaren bidez antolatzen direnak. Azken horietan industria- eta merkataritza-jarduerak gauzatzen dira, eta zuzenbide pribatuari lotu behar zaizkio, nahiz eta irazteko asmorik ez izan. Hirugarren enpresa laguntzaileekiko harremana era horretakoa da, eta interes publiko handikoa da gizarteratzeko eta laneratzeko, ekoizpen-tailerrak lan-merkatuaren antolamendu-errealitatera hurbiltzeko aukera ematen baitu.

Industria- eta merkataritza-jarduera horiek egoteak ez du eragozten entitate hori administrazioaren berezko bitartekotzat hartzea, betiere kontratu publikoen legerian ezarritako baldintzak betetzen badira, batez ere enkargu publikoetatik eratorritako negozio-bolumenaren ehunekoari dagokionez.

Beste kontu bat da lege-aurreproiektuan jasotako aurreikuspena, hau da, AUKERAK beste administrazio batzuen berezko bitarteko gisa aitortzea, atxikipenari dagokion bitarteko propioaz gain. Irizpenaren arabera, horretarako, beharrezkoa izango da estatutuetan onartzen diren gobernu-organoen konfigurazioan baterako kontrola egon dadin bermatzea, eta enkarguak eman diezazkioketen erakunde guztiak ordezkatuta egotea, zuzenean eta batera eragin erabakigarria izan behar baitute entitatearen helburu estrategikoetan eta erabaki garrantzitsuetan. Estatutu horiek, Batzordearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, foru-aldundiak eta toki-erakundeak AUKERAKi eman diezazkioketen enkarguen araubide juridiko eta administratiboa zehaztu beharko lukete, jaso ahal izango dituen tarifen mende egongo direla ezarri beharko lukete, eta bitarteko propio pertsonifikatua den botere adjudikatzailerik deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko ezintasuna zehaztu beharko lukete, hargatik eragotzi gabe, lizitatzailerik ez dagoenean, haiek gauzatzeko ardura eman ahal izatea.

Ohar horiei erantzunez, esan behar da aurreproiektuak EAEko administrazioen berezko bitarteko gisa aitortzeko aukera jasotzen duela, estatutuetan eta sektore publikoko kontratuen legerian ezartzen diren baldintzak betez. Gaur egun prestatzen ari den estatutuen proiektuan, hain zuzen, Aholku Batzorde Juridikoak aipatzen dituen gaiak jasotzen dira.

Xedapen gehigarriari dagokionez, irizpenak ordezkari idazkera bat proposatzen du, argiagotzeko; eta onartu egin da.

Azken xedapenetatik lehenengoan proposatzen du jardueren hasiera-data erakundearen estatutuak argitaratzera igortzea, urtarrilerako estatutu horiek onartuta egon daitezkeela iritzita. Teorian zentzuzkoa izango litzateke adierazten duena, eta modu horretan xedatzeko lanean ari gara estatutuen izapidetze paraleloarekin, legearen izapidetze parlamentarioa baino lehenago ere; baina ez litzateke zuzurra izango legeak lege-irtenbiderik ez jasotzea legez sortutako entitatea edukitzearen eta estatuturik ez izatearen kontingentziari dagokionez, oraindik tailerren ardura hartu behar den egunerako eta zigortutako pertsonen lan-harreman bereziko.

Azkenik, irizpenak araugintza-teknikari buruzko ohar hauek egiten ditu:

- a) Zioen azalpenean 474/2021 Errege Dekretua eta 169/2021 Dekretua aipatzea: Onartu da.
- b) Bi adierazpenen genero-komunztadura zuzentzea: Onartu da.
- c) Paragrafo bakoitza artikulua independenteetan banatzea: Ez da beharrezkotzat jotzen.
- d) 5. paragrafoan, "Onarpen-probak" esamoldearen ordezkari, "Hautaketa-probak" jartzea: Onartu da.
- e) 8. paragrafoan esanahi bera duten bi partizipioetako bat ezabatzea, errepikatuta baitaude: Onartu da.
- f) Xedapen gehigarriari dagokionez, proposatzen du bakarria dela jartzea, eta titulua ematea. Idazkerari dagokionez, aldaketaren bat proposatu du, baina aurretik beste idazketa alternatibo bat ere proposatu du, eta onartu egin da.

Adierazitakoa kontuan hartuta, irizpenak uste du proiektua Gobernu Kontseiluari aurkez dakiokela.

Sin.: Miren Karmele Arias Martínez
ZERBITZU ZUZENDARIA